




Esti Argazkia

Bigarren biltokira heltzen.
Schulze. Sortaldeko aurpegian



Alexander Argazkia

Desiratutako tontorra.
Naranjo de Bulnes «Schulze»tik

Hemen gaude ta poztutzen naiz...

— Irailean...? Urtaro ederra hara joateko!
— Mmm... Orain joatea ez da zihurra, eguraldia berehala alda daiteke eta.
— Oso erraza da!
— Beno nahiko zaila da, prestaturik joan behar duzue.
... eta abar... eta abar.

Denetarikoa entzun ondoren, irtenbide bakarra argi dago: guk geuk ikusi beharko dugu.

Betiko problemak gainditu ondoren (gurasoen baimena, dirua, e.a...) motxilak presatatu genituen. (Guzti honekin expeditio handien arazoek zer suposatuta behar duten datorkit burua).

Autobusez heldu ginen Fuente De-ra, ez zuzenean noski! Hasieran nere lagunak bezain ondo ez ibiltzearen beldur nintzen, baina motxilak astunak ziren eta trankil-trankil ekin genion bidetara hirurak batera.

Zeruan odeiak. Horcados Rojos-en atsedendalditxoak. Kontaezinak dira momentu

Esti, Santos eta Alex

Premio al Mejor artículo en euskera en el concurso de artículos Pyrenaica 84, «por alcanzar un buen ritmo gracias a un estilo ágil. El Jurado aprovecha este artículo para recomendar discreción ante una manera de practicar la montaña que puede resultar arriesgada»

hartako bururapenak, Naranjo bistan agertu zitzaigunean; neuronak topera! Kable guztiak gurutzatuak: gehiegi! Beno hegoaldeetik posible da, ...eta zergatik ez beste edozeinetatik?... Ahal izango ote dut?... garaiagoa zela pentsatzen nuen, baina...

«Jou de los Boches»-ko kableetatik jeisten, Naranjo izkutatuta da eta agertzen dene-

rako aterpean gaude, aurrean, sortaldeko horma jasotzen da harro. Hurrengo egunean odeiek, nekaturik, euren zama askatzen dute eta elurrezko ekaitzak jasatzen ditugu. Horregatik, hirugarren egunean arratsaldean, odeiak zerbait urrundu zirenean alde egin genuen aterpetik hegoaldeko hormarantz, behintzat ikusteko. Hiru ordu laurden beranduago horma azpian geunden, eta materiala eraman genuenez «badaezpada», igo-tzen hastea erabaki genuen. Sei t'erdia edo ba ziren eta ez ginen bakarrik pareta azpian, baina zazpiretarako Valentziarrak e.a. behe-rantza jo zuten eta beste bi mutlekin geratu ginen. Elur jauzi berriaren azpian izkutatutik zegoen oraindik Naranjo. Hasierako kanale-tatik ura alai zetorren gure kontra. Haitza erdi izozturik zegoen, hotz-hotza (inbernalen gogoratasunaz jabetzen naiz). Bi muti-lak gure aurretik doaz; nire bi lagunak ba daude lehenengo biltokian eta ni prest. Tek-nikoki zailtasunak ez dira handiak baina hotz eta ur honekin gogorra egiten zait.

Astiro joan naiz eta lagunak konturatuekin dira baina ez didate presarik ematen. Orain aldiz, berotu egin naiz eta arinago noa. Bigarren zati hau luzeago eta zailago iruditu zait, ura etengabe jausten ari da eta. Hirugarren zatiko diedroa atoa egiten dugu. Biltokietan izan ezik ez dugu klabijarik ikusi, ez gaude ohituta baina ez zaigu txarto iruditzen. Laugarren eta azken zati honetan lehenengoak diedroa errezegia dela eta, ezkererantz jotzen du emozioa jarriaz plaka batetatik igarotzean, gu atzetik. Azken metroak korrika eginaz anfiteatrorra heldu gara, gaua era gurekin heldu da. Aurretik zihozten bi mutilak jaisten ari dira eta (pena handiz) gu ere jaistea erabaki dugu.

Frontal bakarra piztu dugu. Aurreko bi mutilek lehenengo rapela amaitu dute baina sokak berrezkuratzeko ahaleginean, ez dira milimetro bat ere mugitzen. Laguntza eskatu digutenean, berehala askatu diegu korapiloa eta eskatzen diegu gu itxarotea gauza bera gerta ez dadin (rapelaren azpian kanaltxo batzuk daude eta hor geratzen da korapiloa); baina zoroarena eginaz beherantz joan dira... (harrituak!)

Lehenengo rapela hasi eta hamar metro-tara kriston korapiloa dago, askatzera goaz eta... frontala apurtzen zaigu! Zorionez gaua argituz zihoan eta izarrak lagun genituen. Amaierarik gabeko une batzuen ondoren uste dugu konponduta dagoela eta aurrera!

Hirurok amaitu dugu lehen rapela... tira eta tira baina alferrik, sokak ez dute etorri nahi. Hainbat ahalegin egin ondoren gaua hor igarotzeko prest gaude. (Momentu batzuetan izutu naiz ez bait dugu ezer ekarri gaua igarotzeko eta odeiak itzuli ezker...)

Azken indarrak galtzen ditugunean sokari tiraka... BA DATOR!... berriro ere gelditzen zaigu baina azkenez aske geratzen da. (Halako momentuetan zorionetik, haserre eta inpotentzia ez dago ezer!)

Horrela amaitu genituen rapelak, beti sokak jokuei so. Baina hori ez zen bakarra izan; botak hartzerakoan, batek aldapan behera ihez egin zuen. Zorionez beranduago aurkitu genuen. Bidea asmatuz ia ordu bietan aterpean agertu ginen, ordu bietan lo.

Urrengo eguna nahiko argi ateratu zen, baina berandu altxatu ginen. Materiala «desagertu» zitzaigun aterpean eta gogorik gabe egun guztia eguzkitan pasa genuen, ostegunean sortaldera joateko asmoz.

Horrela izan zen. Nahiz eta egun hartan ere berandu heldu horma azpira, ahalik eta arinen prestatu genuen guztia eta gorantz! Pidal egitea pentsatuta geneukan baina hasiera ez zen agertu, «Schulze»-ra jo genuen.

Hasiera oso erraza da baina ez dago klabijarik, lehenengo parte hau kanalez josita dago. Nahiko astiro goaz ez bait gaude ziur bide onetik goazen. Nohizean behin klabijaren bat agertzean poztu egiten gara: —Hemendik da!

Desnivel-en agertu zen krokis-a daramat kolkoan eta noizbehinka hirurak batzen gara

bidea eztabaidatzeko. Hirugarren urratsaren ondoren, trabesia txiki erraz bat dago. (Gogoratzen naiz trabesia hau egin genuenean gorago dagoen terraza zela pentsatu genuela.)

Berriro ere berandu egingo zaigularen susmoa hartzen dugu eta martxa arintzen dugu. Bloke batzuk gainditu ondoren oraindik elurtutako benetako terrazan gaude. Hemendik sokarik gabe goaz tenpora aurreratzeko. Zati honetan zailtarik handienak izan genituen ez genekigulako terrazaren zein lekutatik gorantz jo. (geroago mapak eta aztertuz konturatu ginen ez zitzaigula ezer falta «Nosferatu»-ra sartzeko).

Azkenez terraza bukatzen zen lekuan bertan gorantz egin genuen. Zorionez klabija bat agertu zen... gero beste bat ...beste bat e.a. Hau da bidea! Zati honek nahiko klabija zituen. Ziurrago orain, fisuretatik gora joan ginen. Fisura hauen ostean tximenea antzeko bat jaiotzen da, bertatik hainbat metro irabazten dira. Pentsatzen nuen baino errezago gertatu zitzaidan baina leku batzuetan esforzu handiak egin nituen eta kostatu zitzaidan. Zati honetan zailtasun teknikoak askoz ere handiagoa da.

Eguzkia izkutatu zihono eta izugarriko haizea altxatu zen. Horregatik amaigabeko tximenea hartatik ateratzean haizeak ustegabean harrapatu gintuen. Arista hurbil sumatzen genuen. Azken metro hauek sokarik gabe igotzen hasi ginen baina eremu hau nahiko ezegonkorra zen eta momenturen batetan ere ni zerbait larritu nintzen. Azkenez seguru bat sartu genuen. Bapatean ia ohar gabe, aristan geunden eta tontorra bertan ageri zen.



Haizean errukigabe jotzen gintuen, baina momentu haietan, konturatu ere ez. Pozaren pozez ez nituen lagunak itxaron eta tontorerantz abiatu nintzen soka bazter guztietan sartzen zelarik. Laguna ere heldu zirenean derrigorrezko argazkiak atera, arnasa ondo hartu eta behera joateko prest.

Eguzkia zeharo izkutatu zen eta hotz sentitzen genuen udako «modeloaz» igon genuen eta.

Sokak askatu eta batu ondoren hegoaldeko aurpegira abiatu ginen. Anfiteatrorarte destrepatu genuen eta rapela ahalik eta bizkorren prestatu genuen. A!! baina oraingoa ez zaigu gauza bera gertatuko! Bi sokak lotzen dituen korapiloa, kanaltxoan azpian jarri genuen eta nahiz eta hasieran salto bat eman behar hobeto iruditu zitzaigun.

Rapelatzen nengoelarik mosketo! bat zabaltzen entzun nuen, eta kriston beldurrez amaitu nuen rapela ia ia besoetatik eskegirik. Urrengo rapeletarako arazoa konpondu nuen baina ezin izan nuen ikara gorputzetik aldentu sokak problemarik gabe gureganatu genituen eta bigarren eta hirugarren rapela ere ondo amaitu genuen. Bat bakarrik falta zitzaigun, heltzeko gogoak izugarriak ziren, baita ere hotza izugarria zen eta gaur ez zegoen ia izarririk. Azken rapela egiteko sokak hartu nahi izan genituen... Kaka zaharra! Berriro geratu dira! ...Ez zegoen modurik jaitsiarazteko. Soketatik eskegi ginen eta guzti baina dena alferrik. Hotz harekin ez zitzaigun burutik pasa ere gauez han gelditzea eta azkenez, denbora asko ondoren, lagun bat «prusik» bat sokari lotuz berriro gorantz joan zen. Nahiko larriturik nengoan, ez ditut batere atsegin liada hauek eta lurra hain hurbil zegoen...

Baina beno, ez zen ezer gertatu, lehen bezala, beheragotik hasi zuen rapela eta gero sokak problemarik gabe heldu ziren.

Guzti hau bukatu ondoren, sortaldera itzuli ginen botak eta jantziak hartzeko; hainbat denbora ibili ginen bilatzen eta minutu luze eta dardarti asko igaro ondoren beherantz jo genuen galdetuz haizeak eramanez ote ez zituen.

Zeharo nekatu eta hotziturik heldu nintzen aterpera, han zegoen jendeak te gozo bat eskeini zigun eta pozik onartu genuen. Ezin izan nuen ezer gehiagorik hartu eta ohera joan nintzen.

...Urrengo eguna euritsu ateratu zen eta gero eta indar gehiagoz. Adizkide bat, badaezpada utzitako gauzen bila joan zen eta den dena aurkitu zuen baina noski, hamaika ur litroekin. Aterpean pasa genuen eguna jadanik janaririk gabe.

Nahiko goiz altxatu ginen, odeiek euren zama ziurtasunik gabe eusten zuten, hala ere bideari ekin genion...

...Gauko bostetan Bilbon ginen.

(Oharra: badakit eskualde hau nahiko ezaguna dela, baina nik sentitu dudana bakarra izan da, askotan paper batean adierazina)